

**BIDASOAKO XIX. NAZIOARTEKO ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA
2019**

OINARRIAK

Irungo Oiasso Erromatar Museoa BIDASOAKO XIX. NAZIOARTEKO ZINEMALDI ARKEOLOGIKOA aurkeztu du, Irungo Udalak antolatuta (www.irun.org). 2019ko azaroaren 18tik 23ra izango da; eta helburua da jendeari arkeologia ezagutzera ematea, arkeologoek egindako lanen ondorioz prestatu diren ikus-entzunezko lanen bidez eta lan horien sustapena eta dibulgazioa ziurtatuz. Hona horretarako oinarriak:

1.- Parte hartzea

1.- Genero guztietako zinema-dokumentuak (dokumentala, erreportajea, ikerketa, eta abar) parte hartu ahal izango dute Jaialdian, edozein nazionalitateko edozein pertsona edo erakunde publikok edo pribatuk ekoiztuak izan daitezke, baldin eta lan horien edukia arkeologiari eta bere teknikei, etnoarkeologiari eta ondare arkeologikoari eta haren kontserbazioari buruzkoa bada.

2.- Baldintza teknikoak

2.1.- Dokumentu zinematografikoak euskarri fisikoan (DVD edo Blu-ray) nahiz formatu digitalean aurkeztuko dira Hautaketa Batzordera, deskarga-loturaren bidez edo fitxategia WeTransfer, Dropbox edo antzeko beste baten bidez bidaliz. Pelikula hautatua izanez gero, eta HD-n kopiari baldin badauka, bertsio hori eskatuko da proiektiorako.

Izen-ematea ere Festhome (festhome.com) plataformaren bidez egin daiteke, lotura honetan <http://festhome.com/f/1213>.

Horrekin batean, honako hauek aurkeztuko dira:

- Izena emateko orria, behar bezala bete eta sinatuta, honekin batera doan ereduaren arabera.
- Obraren dokumentazioa: hiru argazki formatu digitalean (300 ppp).
- Aukerako dokumentazioa: prentsa dossierra, egilearen filmografia.

2.2.- Hautaketa prozesuan izen eman duten filmak jatorrizko bertsioan aurkeztu behar dira:

- Azpitolurik gabe filmaren jatorrizko hizkuntza gaztelania, euskerara, ingelesa edo frantsesa bada.
- Azpitoluekin (gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez edo frantsesez), jatorrizko hizkuntza beste edozein bada.
- Filma hautatua izaten bada eta gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza batean filmatua izan bada, zine-jaialdiak hartuko du hura gaztelaniara eta/edo euskerara itzultzeko eta azpitoluak jartzeko ardura.

2.3.- Antolakuntzari e-mail bidez jakinaraziko zaizkio irteera eguna, bidaltzeko modua eta filmaren izena.

2.4.- Jaialdiaren artxiboan geratuko da jatorrizko kopia.

2.5.- Antolakuntzak izendatutako Hautatze Batzordeak aukeratuko ditu Jaialdian proiektatuko diren lanak eta bere palmaresen sartzeko gai izango dira horiek.

2.6.- Antolakuntzak zuzenean jakinaraziko die aukeratutakoei Jaialdiko azken fasera pasa direla.

2.7.- Aukeratutako lan guztiak Jaialdiko Programa Ofizialean sartuko dira.

2.8.- Antolakuntzak Jaialdiaren publizitate edo hedapen xedeetarako erabili ahal izango du material grafikoa.

2.9.- FICAB-en artxiboan utzitako jatorrizko kopia jarduera didaktiko edo kultura nahiz sustapen jardueretarako eta zine arkeologikoari buruzko zikloetarako erabili ahal izango da irabazi asmorik gabe eta merkataritza helbururik gabe, egilea/ak aipatuta.

2.10.- Antolakuntza zinema-dokumentuen osotasunaz arduratuko da uneoro, baina hala eta guztiz ere, eta ustekabeen hondamenen bat gertatzen bada, antolakuntzak ez du erantzungo sortutako kalte horien aurrean.

2.11.- Noizbait jaialdira bidali izan diren filmek ezingo dute berriz jaialdian parte hartu.

3.- Lanak jasotzea

3.1.- **Lanak jasotzeko** epea **2019ko maiatzaren 15ean** beteko da.

3.2.- Obrak **Oiasso Erromatar Museoren** helbide sozialera bidaliko dira. Honako hau da bidali beharreko posta helbidea edo, pelikula online bidaltzen bada, ficab.oiasso@irun.org emailera:

Bidasoako XIX. Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa

Oiasso Erromatar Museoa
Eskoleta, 1
20302 Irun (Gipuzkoa)

4.- Epaimahaia eta sariak

Jaialdiak bi sail ditu: Sail Ofiziala eta Hezkuntza Saila. Inskribatutako film guztiak bi sailtako edozeinetarako hartuko dira kontuan, dituzten ezaugarrien arabera. Jaialdiko Hautaketa Batzordea izango da pelikulak aukeratzeaz eta bi sailtan banatzeaz arduratuko dena.

4.1.- Honako sari hauek banatuko dira:

- **Jaialdiko Sari Nagusia:** 2.000 euroko saria
- **Publikoaren Sari Berezia:** 1.000 euroko saria
- **Orona Fundazioaren Saria Hezkuntza Sailari:** 600 euro.
- **Zientzi dibulgazioaren Arkeolan Saria:** ekonomi zuzkidurarik gabea.

Hautatutako film guztiek izango dute Publikoaren Sari Berezia eta Arkeolan Saria lortzeko aukera. Baina, Jaialdiko Sari Nagusia Sail Ofizialeko film bati emango zaio eta Orona Fundazioaren Saria Hezkuntza Saileko film bati.

Jaialdiko Sari Nagusiaren Epaimahaia, Antolatzaileek izendatua, ikus-entzunezkoen eta arkeologiaren munduko profesional prestigidunek osatuko dute, eta haien epaia apelaezina izango da eta lehiaketa amaitzeko ekitaldian egingo den sari-banaketan emango da jakitera.

Publikoaren saria proiektioetako bakoitzean jarriko den boto-ontzi batean bozkatzuz emango da; Arkeolan Saria eta Orona Fundazioaren Saria, berriz, hurrenez hurren, fundazio horietako bakoitzak emango du.

4.2.- Sarien kopuruei PFEZren atxikipena egingo zaie, indarrean dagoen legeriak zehaztutakoaren arabera.

4.3.- Filma inskribatu duen pertsona, erakunde edo enpresari emango zaio saria.

4.3.- Saritutako obrek saria lortu dutela aipatuko dute filmetan honako erreferentzia testu honekin “**Irungo Bidasoako XIX. Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa 2019**” eta Irungo Udalaren logotipoa ere azalduko dute (www.irun.org).

5.- Onarpena

5.1.- Oinarri hauek erabat onartzen direla esan nahi du Jaialdian parte hartzeak. Hauetan xedatu ez den guztian, egokitzat hartzen duena erabakiko du Antolakuntzak.

5.2.- Oinarri hauek Udaletxeko Iragarki-taula digitalean argitaratuko dira 15 egun naturalez.

6.- Izaera Pertsonaleko Datuen Babesa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoak xedatzen duena betez, jakinarazten da biltzen diren datu guztiak, helburuaren arabera, Irungo Udaleko Informazio Sistemari txertatu ahalko dira.

Datu horien erabilera, bakar-bakarrik, udal eskuduntzetara mugatuko da, eta beste Herri Administrazioei edo hirugarrenei utzi edo komunikatu ahal izango zaizkie Legean aurreikusitako balizko kasuak ematen direnean. Interesatuak datuetara sartu, haiek ezabatu, zuzendu eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte, Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuaren (HAZ) bitartez.

Informazio gehiago

- **Oiasso Erromatar Museoa.** www.oiasso.com / E-maila: ficab.oiasso@irun.org. Tfnoa: 943.63.93.53
- **Irungo Udala.** www.irun.org / E-maila: cultura@irun.org.
- **HAZ. Hiritarrak Atenditzeko Zerbitzua.** Irungo Udala. Tfnoa.: 010 / (+34) 943.50.51.52.

Irun, 2019ko martxoa